



**Maitena Usabiaga Sarasua**  
Sexologo eta psikologoa

## Erotika erregulatua



**G**oizero bezala, esnatu eta irratia piztu nuen gosaria egin bitartean. Mugikorreko aplikazio bati buruz hitz egiten ari zirela iruditu zitzaidan, ez nuen interes handirik jarri hasieran, baina «harreman sexualak» entzun eta belarriak tentetu zitzaizkidan.

Harreman sexualak –hala deitzen diete batzuek– erregulatzeko tresna moduan aurkeztu zuten Danimarkako aplikazioa onespen esplizitua emateko balio duen aplikazioa omen da. Norbaitek harreman erotikoa nahi izanez gero, gonbidapena bidali eta besteak baiezkotza edo ezezkotza ematen du eta onespen horrek 24 orduko balioa izango du. Iritziz aldatzeko aukera ere bada, harreman erotikoa izan baino lehenago eta baita bitartean ere. Berria aurkeztu ondoren, irratiko tertuliano orojakileek beren iritziak partekatu zituzten. Nire belarriak tente egotetik, gorri jartzen hasi zitzaizkidan. «Sexua» hitzak zergatik ekartzen du beti zikintzen duen beste hitz edo adjektibo bat ondoan? Indarkeria ekidite aldera, ez al dugu gure esparru erotikoa gero eta gehiago mugatzen?

Ez dira galdera erantzun errazak, nola erregulatu gure desiren dantza aplikazio edo legeen bidez? Hala ere, pentsatzera ausartu naiz eta deigarria iruditzen zait indarkeriaren eta erotikaren arteko harremana. Egia da gure bi ezaugarri hauek harremana dutela, ziur asko betidanik izan dute eta seguruenik, beti izango dute (indarkeria leku guztietan dagoelako eta beraz, baita erotikaren arloan ere). Baina harreman sexual deitzen dioten esparruan, indarkeriak beste konnotazio bat hartzen duela iruditzen zait, grabeagoa, mingarriagoa, morala. Eta honekin ez dut esan nahi

indarkeria hauek ez dutenik minik egiten, edo ez direnik mingarriagoak, bakoitzaren bizipenetan uzten dut mailakatze hori, baina jendarte bezala gai hau nola lantzen ari garen arduratzen nau.

**Harreman erotikoen erregulazioa eskatzen ari dira asko. Ez da gauza berria, kulturak, jendarteak, existitzen direnetik, erotikaren erregulazioak egon dira, gure gorputz eta desirak kontrolatzeko asmoz.** Lehen bekatuaren izenean, osasun mentalean, gaixotasunenean, arriskuenean eta orain, indarkeria ekiditearen izenean. Erotikaren erregulazioak, debekuak, ez du indarkeria desagerarazi, desinformazioa, errua, beldurra eta kontrola indartu baizik. Gure erotiko izatea arriskutsua dela indartzen jarraitzen dute, kontuz ibili behar dugula gure plazerekin, gorputzekin, genitalekin. Indarkeria hau

isolatuta dagoela pentsarazten digute, indarkeria estrukturala dela ukatuz. Sistema honek bultzatzen dituen harreman ereduak toxikoak direla ezkututzen dute eta gainera, gure ohean sartzeko eskaria egiten digute, eta askok, onartu.

**Behin eta berriro, erotikaren zikintzearekin aurkitzen gara. Ez dugu modu positiboan lantzen, beti dago alde ilunaren gailentze bat.** Agian, gure buruak erotikoki ezagutzeak lagunduko liguke, zer gustatzen zaigun eta zer ez ezagutzeak, jolasean ari garenean gertatzen diren egoerak kudeatzen ikasiko bagenu, gure limiteak errespetatuko bagenu, bestearenak ikusten erakutsi, harremanei buruz hitz egingo bagenu, baietzi lekua eman, gure burua babesten ikasi... gure izate erotikaren ahalduntzea ekarriko luke. Agian ez da hori helburua, ezta? •



Agian, erotika modu positiboan landuz gero, gure buruak erotikoki ezagutzeak lagunduko liguke.